

ERREENTERIYA

Ramon Illaramendi, Alkatea'ri.

Errenteriya aberats dago
lanak goitzen du guztiya,
itsasoak ta Oarso ibaik
naste daukate buztiya;
borrokan dabiltz ur biyak eta
elkargan dute ausiyya,
zure epaya ema-zu azkar
Kantauria'tar nausiyya.

Zure izena zabaldua da
ekintzaz zaude goitsua,
urrez ezтали dezu osoro
lengo erreka loitsua;
zuk tentekatzen dezu beartsu
edo ekinle doi-tsua,
baita apaindu ere goikiro
zelai arlote soiltzua.

Lengo zarraren aldamenean
eche mordozka berriyya,
egiñ ondoren, alaitu da gaur
ekindez Errenteriyya;
suak zabaltzen duben kea-kiñ
aberastu da erriyya,
ikatz beltzakin anai dalako
Oarso ibai garbiyya.

Errenteriko andre goitsua
da achipi-ko arriyya,
onen ondoren nausi zar edo
buru da liño ariyya;
erri ontako seme jatorra
ez da langille nagiiya
baizik buruz da oso azkarra
ta begirunez argiiya.

Nere seaska maitagarriyya
zutzaz oroituz naukazu,
zure seme au intziriz berriz
orrera nairik daukazu;
auzo askoren begiyak zabal
zuri begira dauzkatzu,
ta gu; or jayo geran apurrok
pozez zoratzen gauzkatzu.

Erbestetuak arki geranak
mordozkacho bat bagera,
zure izen, ta izanki danak
goitzen azperten ez gera;
ekinde eder eta aundi-gaiz
gaur badaukazu aukera,
ta zure gayak dauzken indarrez
Euskal-erri ta Euskera
goituaz zoaz, pizkor noranai
ega biziyyan Aurrera.

Ni aurdarozko jolas pollitak
oraindik pozak naukate
ta zu, seme on denen kemenez
oso goiturik zauzkate;
erbestarren artean zure
izena goiki daukate,
ta gu, ekinle zintzo ta ontzat
leku guztitan gauzkate,
gai oen jabe dalako da gaur
Illaramendi Alkate.

JUAN IGNACIO URANGA